

# Goierriarra

304. zenbakia 2006ko uztailak 7

**SEGURA:  
750 URTEKO  
HISTORIA**

**ARGI**  
OPTIKA

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain  
T 943 88 31 10 [www.argioptika.com](http://www.argioptika.com)

**E W M E**  
zure ikusmena zainduz  
zure estetikaren oinarrizko osagaia





**BEROGAS**  
 ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA  
 BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK  
 ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK  
 BERRIKUNTZA LANAK  
 GREMIO GUZTIEN ARDURA



**BEROGAR**  
 SUKALDEKO ETA  
 BAINUKO ALTZARIAK



**BULEGOAK-LANTEGIA**  
 USABAL, 11-A  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 672 620

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**



**ERAKUSKETAK:**  
 SAN FRANTZISKO, 10  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 653 307



*Medikuntza eta zirujagian lizentziatuak:*  
**I. Fdez. Or naburu Dra.**  
 (Medikuntza estetikoan masterra)  
**A. Ramirez Baigorri Dra.**

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

*Kursal*  
 ZENTRO MEDIKUA  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

**943 88 22 51**

Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**



R.P.S.:3204

## BERTSOTAN



Iker Zubeldia

## Sanferminak

Lesaka ta Iruña  
bi herri, bi gako  
guztiok parrandara  
kanpo ta bertako  
zezenaren aurrean  
hamaika zartako  
alkoholak jartzen gaitu  
mimoso plantako  
Sanferminetan ezta  
adarrik faltako.

Autoa hartzekotan  
poliki gaztea  
orain erraza denez  
arauak haustea  
lo egitean dago  
puntuen koskea  
erreza da tokitik  
aldatzen hastea  
karnetetik kenduta  
kopetan jostea.

Goierritarra

## HAMABOSTEKARIA

## Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

## Posta elektronikoa:

goierritarra@goierriko hitza.info

## Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere  
gain hartzen derrigorrez,  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzukizunik.**

## AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Xabier Mendiguren Elizegi.5. **Ingurugiro txokoa:** Agroaldeak.6. **Errezeta:** Onddo puding-a.  
**Aholkua:** Papiloma edo oinazpiko  
garatxoa.7. **Erreportajea:** Segura sortu  
zeneko 750. urteurrena.12. **Elkarrizketa:** 750 urte: zer  
ospatu behar da?15. **Gazteleku:** Igor Barrero  
pianojole lazkaotarra.16. **Elkarrizketa:** Jaione eta Gorka  
Sasieta.20. **Goierritarrak munduan:** Estebe  
Ormazabal, beasaindar brasildarra.24. **Iragarki laburrak.**26. **Argazki zaharra.**

16



20



## Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,  
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta  
Zeraingo udalak





Xabier Mendiguren  
Elizegi

**Beste garai bat  
dugu hau, eta  
ez gara  
melankoliko  
jarriko, ez  
dugu esango  
hura hobe  
zenik, gezurra  
baita: gauza  
gehienetan  
hobera egin  
dugu  
denborarekin.**

## Goierri: zer hintzen eta non hago?

Joan den ekainean, *Jakin* aldizkariak 50. urteurrena ospatzen zuela-eta, ekitaldi bat antolatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundian, aldizkariaren orain arteko ale guztiak biltzen dituen DVDa aurkezteko eta Internet-en kontsultagai dagoela iragartzeko.

Aurkezpenaren ondoren mokadutxo bat jaten ari ginela, deigarria egin zitzaidan, momentu batean, zenbat goierritar geunden ohartzea: horra, hasteko, aldizkariaren arima eta motorra izan direneta-ko bi, Joseba Intxausti segurarra eta Joxe Azurmendi zegamarra; eta horiez gain, han ziren euskalgintzan pisu handia izan duten eta oraindik ere zeresana daukaten hainbat lagun: Dionisio Amundarain itsasondoarra, Xabier Mendiguren Bereziartu ezkiotarra, Elixabete Garmendia ormaiztegiarra...

Kulturgintzan punta-puntako eskualdea izan da gurea; ez hainbeste bertan lortutako emaitzogatik, baina bai bertako seme-alabek Euskal Herri osoari begira egindako lanagatik. Garai bateko idazle, itzultzaile, kazetari, zuzentzaile eta bultzagileen zerrendak begiratu besterik ez dago, gure lur elkor honetatik irten izana euskara jatorraren berme eta lanerako eskarmentuaren adierazgarri balitz bezala. "Goierritarren mafia" esaten zuten zenbait lekutan, gure bailarako oparotasunaz burlaka edo.

Iraganaz ari naiz ordea, Goierri burri burri fabrikak eta apaizgaiak ugari ziren sasoiak, baita apaizgaiak utzi eta gero burriekin borrokan ibiltzen ziren gazte suharrak ere. Beste garai bat dugu hau, eta ez gara melankoliko jarriko, ez dugu esango hura hobe zenik, gezurra baita:

gauza gehienetan hobera egin dugu denborarekin; gazteria prestatuagoa dugu, toleranteagoa, jantziagoa, bizitzaz gozatzeko hobeto dakiena...

Baina (barka beti baina-ren bat sartzea). Baina gure protagonismoa edo emankortasuna edo dena delakoa moteldu egin da nabarmen. Gazteen artean badauzkagu, Euskal Herri osoko plaze-tan ez ibili arren, haien inbidiarik batere gabeko bertsolari on askoak; gainerako kultur arloetan, ordea, ezin gauza bera esan: idazleetan eskas (Zubizarreta eta biok 42na dauzkagu, eta nor dator atzetik?); musikaren munduan zaila dago burua altxatzen, baina benetan gutxi dira gure artean nabarmendu direnak (Suganekoen salbuespen pozgarria azken aldian); antzerkian, eskola eta tailerren urtean behingo emanalditik aparte, ezer ez; ikus-entzunezkoetan, Joxemari Goenaga ordiziarraz kanpora, basamortu hutsa.

Zein da arrazoia? Beharbada lehen lokarturik zeuden eskualdeak pixkortu egin direla? (Bizkaiko hainbat bazterretan, esaterako, mugimendu interesgarria dago orain, lehen ez bezala). Ala oparotasun ekonomikoarekin itsututa kultur kontuetarako halako sorgortze batean erori garela? Ez dakit zein den azalpena; baliteke kasualitate hutsa izatea ere. Dena dela, halako txikikeria batekin larrizteko arrazoirik ere ez dagoen arren, esan egin nahi nuen, gure goierritar harrotasunak lokatzezkoak dituela oinarriak, gure aberastasun ustekoak ustel antzean barrenak. Ea laster datozen neska-mutil ekintzaileak, nire ikuspegia zaharkitua eta oroiminak jotakoa dela aurpegiatzen.

**ZUGAZTIBI**  
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net  
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58  
Faxa: 943 16 15 58  
Domingo Unanue plaza, 2 behe  
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble  
ajentzia

9:30etik 19:00etara  
EGUERDIZ IREKITA

*Aseguru korreduria*

SEGURUEN PROFESIONALAK

**MUNDUATE**

Elosegi, 1- behe  
Tfnoa.: 943 88 86 20  
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41  
Faxa: 943 88 91 18  
**LAZKAO**

# Agroaldeak

Agroalde batean nekazari-tzakako jarduerak batzen dira, industrian erabiltzen den kontzeptu bat nekazaritzan aplikatzea da. Azpiegitura komunak administrazioak finantzatzen ditu eta hainbat lursail bereizten dira, horietan lan egin nahi duen orok du lur hauek alokatzeko aukera.

Agroaldea industrialdearen itzalpean sortzen da, erakundeek askoz konpromiso txikiagoa hartzen dute agroaldeekin. Izan ere, lur askoz gehiago behar da enplegu askoz gutxiago lortzeko.

Industrialdeekin alderatuz, desberdintasun ugari dituzte: batetik ekonomikoa eta bestetik kokapena; izan ere, agroaldeak egiteko oro har, ez dira lurra hautatzen, bazterretan kokatzen dira eta askotan betelanak egiten dituzte, beste ezertarako nahi ez diren lurra baitira. Gainera ekoizleak inoiz ez dira lur horien jabe egiten. Agroaldeetan lurra ezin da erosi, baina alokairua oso merkea izan ohi da.

Agroaldeen ideia 1992an sortu zen Euskal Herrian, Oiartzun izan zen lehena eta ondoren etorri ziren San Markosekoa (Errenteria-Donostia), Asteasukoa, Arraguakoa (Oiartzun), Astigarrakoa eta Lezokoa. Baina beste proiektu



batzuk ere badira bidean. Hauek guztiak jabetza publikoko poligonoak dira, 4.000 eta 10.000 m<sup>2</sup> bitarteko lursailetan banatutakoak dira. Industrialde bat bezala, hauek argia, ura, sarbideak, eta itxiturak komunetan dituzte. Agroaldeetan barazki, landare eta lore moztuen laborantzian jarduten dute bereziki.

San Markoseko Agroaldean adibidez, Donostiako hiri-hondakin solidoen zaborteziaren ondoan dago, eta, horri esker, berogailu gisa erabil daiteke zabortegiko biogas-instalazioko motorrak erabiltzen duen ura, motor horietatik ur beroa ateratzen da. Hemen metanoa sortzen da (biogasa), metanoa gas naturalarekin nahasi eta prozesu batzuen ondoren argindarra sortzen da.

Oiartzungo Arraguan ere gas naturala erre eta ar-

gindarra sortzen da.

Agroaldea hauetan batez ere barazkiak eta landareak ekoizten dira, kasu gehienetan tomateak. Ekoizpenak lurrian, loreontzian edo hidroponikoan egin daitezke. Laborantza hidroponikoan, buztinez osaturiko zakuak erabiltzen dira, substratu artifizial bat da eta landare ureztatzeari esker behar dituen elikagai guztiak iristen zaizkio. Negutegiak landareari behar duen ingurune goxo hori ematen dio urte guztian zehar.

Baina Agroalde guztiak ez daude negutegiz osatuak Lezoko Agroaldea, adibidez aire librean dago; lore, landare eta bertako zuhaitzen ekoizpena bideraturik dago.

Tolomendik Villabonan Agroalde Ekologiko bat martxan jartzeko proiektua du, bertan parte hartu nahi duen orok proiektu bat aurkeztu beharko du, oraindik epea zabalik dago; uztailaren 28an itxiko da. Informazio gehiago nahi izanez gero telefono honetara deitu (943 655097).

<http://www.zientzia.net>  
web gunetik jasotako informazioa

## JAKIN BEHARREKOAK

**Nazio batuen erakundeak Basamortuen eta basamortutzearen nazioarteko urtea** izendatu du 2006-a. Basamortutzea natura eta gizakiarentzat mehatxua dira. lurraren azaleraren %41 lehorra da eta horietatik %10-20 gainera degradatuta daude eta ez dira emankorrak.

**Aranzadi zientzia elkar-teak Euskal Herrian egingo den lehendabiziko herpetologia kongresua antolatuko du.** Lankide izango dira Euskal Herriko Unibertsitatea, Espainiako herpetologia elkarteak, Portugalgo herpetologia elkarteak eta Haritzalde naturzaileen elkarteak. Ekimen honek Iberiar penintsulako herpetologoan arteko lankidetzak eta komunikazioa sustatu nahi du.

Mendizorrotzen, Gipuzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoen "galtzeko arriskuan" dagoen **hegoaldeko zuhaitz igelaren kudeaketa plana** egiten ari da. 1999. urtean onartu zen plana eta ordutik mendilerroan dozena putzutik gora eratu dira. Helduak eta zapaburuak sartu dituzte eta gehienetan espeziea ugaltzen ari dela baieztatu dute.

**Negutegi efektua** sortzen duten gasen kopurua Espainian %51 igo da, 1990 urteko datuekin aldentuta. Horrela jarraitu ez gero nekez beteko da Kyotoko protokoloa.

**Agroaldea industrialdearen itzalpean sortzen da, erakundeek askoz konpromiso txikiagoa hartzen dute agroaldeekin.**



**Iban Mate**  
Dolarea Jatetxea  
Beasain

**Osagaiak**

- Arrautzak
- Esne gaina
- Onddoak
- Olioa
- Gatza
- Gurina
- Ogi birrindua

Zartagi batean olio pixka bat jarri eta bertan onddoak gorritu. Eginda daudenean onddoak esne gainarekin birrindu. Ondoren arrautzak nahastu.

Laberako moldea guri-

narekin eta ogi birrinduarekin igurtzi eta aurrez prestatu-  
turiko orearekin bete.

Labean sartu 20 bat minutu maria bainuan. Molde-  
tik atera hozten utzi eta ja-  
teko prest dago.

## Papiloma edo oinazpiko garatxoa

## AHOLKUA

Papiloma edo oinazpiko garatxoa kapilareak eta nerbioak dituen, eta HPV (giza papilomabirusa) birusak eragindako tumore onbera bat da. Ohikoena eskola adinetan ematea da, 5etik 20 urtera, nahiz eta edozein adinetan azaldu litekeen.

Kutsakorra eta autokutsakorra da, hau da, beste pertsona batzuk kutsa ditzakegu baita geure burua ere gorputzeko beste lekuren batean. Kontaktuzuzenaren bidez kutsatu gintezke, baita odolaren bidez ere.

Garatxorik ohikoenak esku ahurretan edo oinazpitan izaten dira. Noizbatean garatxoak izan baditugu 3 aldiz aukera gehiago dugu berriz ere izateko.

**NHPV-aren kutsatzea**

Hezetasunak larru azaleko poroak zabaldu arazten ditu, honek birusa azalean barnera sartzea errazten du.

Igerilekuak, hondartzak, dutxak, aldagelak... dira kutsatze askoren eragile.

Oinazpiko garatxoaren kasuan, gorputzaren pisuak egindako presioaren eraginez, garatxo hauek oinazpiko ehunetan iltze bat bezalaxe sartzen dira. Honek nerbio muturrak zanpatzen ditu, ibiltzean edo korri egitean mina eraginez.

**Tratamendua**

Gaur egun podologoak hainbat tratamendu eraginkor dauzkagu. Produktu besberdinak zuzenean garatxoei aplikatuaz hauen ehunak suntsitzen ditugu.

Edozergatik tratamenduek huts egiten badute, kirurgiara jo dezakegu garatxoa sustraietik ateratzeko.

Oso garrantzitsua! Garatxoa dugun susmoa izanez gero, podologoarengana joan behar gara tratamendua lehenbailehen hasteko. Ku-

tsakorra denez, noiz eta lehenago antzeman, sendatze denbora laburragoa izango baita.

**Gaixoaren egin beharrak:**

- Tratamendua zuzen eraman eta podologoaren aholkuak zuzen jarraitu.
- Dutzatu ondoren ondo lehortu, baina beti azkenerrako garatxoa dagoen gunea utziaz, gorputzeko beste alderen bat ez kutsatzeko.
- Dutzatu ondoren bainuontzian liziba pixka bat botako dugu, beste inor ez kutsatzeko.
- Hiperhidrosia (izerdi asko) izanez gero, garrantzitsua da tratatzea, hezetasunak birusa hartzea errazten baitu, tratamenduari kalte egiteaz gain.
- Gimnasia, igerilekura... joanez gero beti txankletak erabili.



**Ainara Etxeberria**  
Hankara Podologia  
Zentrua

# Autowag



☎ 943 888 254  
☎ 943 888 266  
Faxa: 943 888 105  
N-1 errepidea, 419 Km  
**BEASAIN**

# Segura sortu zeneko 750. urteurrena



**O**spakizun urtea dute aurten Seguran. 750 urte betetzen dira Gaztelako Alfontso X. erregeak, 1256. urtean, hiri-gutuna eman zionetik. Hiribilduaren sorrera, garai gataz-

katsu haiek, giza taldeak... Ardixarra Erdi Aroko Interpretazio Zentroan ikus eta ikas daitezke. Orriotan 'Seguraren urrezkoa aroa' laburtzen da Ardixarreneko erakusketan oinarrituta.



**Osinalde s.l.**

**DESGUAZEA**

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es  
943 88 70 48 lgara industrialdea, z/g  
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Kol. zkia.: 764



*Nerea Larrea Oyarbide*

Aho kirurgia  
Implantologia  
Periodontzia  
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

1256. urtean, Gaztelako Alfontso X. Jakituna erregeak, hiri-gutuna eman zion Segurari, Ordiziari eta Tolosari bezala. Segurako hiri gutunak ez du orain arte iraun, 1280 aldera Seguran izan zen sute baten ondorioz, erre egin baitzen. Baina Hiri Gutuna berresteko 1351n emandako Pribilegioa gordetzen da.

XII. mendearen erdialdetik XIV. mendearen bukerara bitartean, Euskal Herrian 90 hiribildu eratu ziren, haietatik 25 Gipuzkoan. 16 erregearen ekimenez eta 9, herritarrek eskatuta, landa-bizilekuan alternatibagisa.

Hiribilduen fundazioa eragin zuten arrazoi nagusiak ondorengoak dira: Erregeak portuak nahi zituzten Bizkaiko itsasoaren kostaldean; Erresumako mugak seinatu eta babes-teko ardura; Herritar elkartu berriak babesteko segurtasuna lortu beharra zegoen.

Gipuzkoan, Donostiako hiribildua fundatu zen lehenengo, 1180. urtean. Nafarroako Antso Jakituna erregeak fundatu zuen, itsasotik merkataritza-bide bat zabalteko asmoz.

Ondoren, Alfonso VIII.ak eta haren ondorengoek jarraitu zuten kostaldean hiribilduak sortzen (Hondarribia, Getaria, Mutriku eta Zarautz). Dena den, barrualdean ere fundatu zituzten, komunikazio-bideak sendotzearen.

Gasteiztik bi bide sartzen ziren Gipuzkoan: bat Donostiaraino iristen zen, Segura, Ordizia eta Tolosatik igarotzen zen errege-galtzadari jarraituz, eta besteak, Deba bailara zeharkatzen zuen.

Segurako hiribildua, antzinako Nafarroako eta Gaztelako erresumen arteko muga estrategikoki kokatuta zegoelako fundatu zen, hain zuen ere Iberiar Penintsularen barnealdea, Bizkaiko itsasoaren kostaldea eta



## Gipuzkoako hirugarren herririk garrantzitsuena

Josune Arrondo Segurako Turismo eta Kultur teknikariak, behin eta berriz azaldu izan die Seguraren historia, Segurara bisitan datozenei. “Segurarak onartutako erabakia izan zen hiribildu izendatzearena. Horren trukean, hainbat eta hainbat pribilegio eskuratu zituzten segurarek. Joseba Intxausti historialariak oso garbi uzten du, erregeak egindako ekimenei, herritarrei laguntasun handia ematen zaiela. Laguntzen die, urbanistikoki antolamendu bat egiten; pribilegio batzuen bidez laguntza batzuk ematen dizkie, adibidez, merkataritza laguntzak... azkenean onurak ekartzen dizkie herritarrei. Arrazoi horregatik, 1384. urtetik 1615 urtera bitartean, Seguraren urrezko aroa da, inguruko herri guztiak Segurari elkartu nahi zaizkie, Segurak zituen pribilegio horietaz baliatu nahi dutelako”, azpimarratu du segurarrak.

Bi mendez, Segurak izugarriko boterea eduki zuen. “Batzar Orokorretan adibidez, hirugarren herri garrantzitsuena da Donostia eta Tolosaren atzetik. Botere izugarria dauka Gipuzkoan hartzen diren erabaki guztietan”.

### Gainbehera

Arrondoren esanetan, “XVII. mendean kejak hasten dira, garraiobide hobeak eskatzen, San Adriandik ezin dela pasa... burdinolak sortzen hasten dira... bide berri bat osatzea eskatzen du, Etxegarartetik doana, errege bidea alde batera gelditzen da eta Segurako garrai hartako agintariek ez dute bertatik trena pasatzerik nahi. Horrek baldintzatzen du gaur egungo hiribilduaren itxura eta hazitzea. Pixkanaka Segura gaur egungo itxuran gelditzen joaten da”.

Europa lotzen zituen bide nagusiaren ondoan.

### Santiago bidea

Santiago bideko barnealdeko bideak Gipuzkoa osoa zeharkatzen du Erdi Aroko Errenteria, Hernani, Tolosa, Ordizia eta Segura hiribilduetan barrena eta, San Adriango tunela igarota, Araban sartzen da. Kostaldeko bidea ez bezala, bar-

nealdekoa Europa eta Penintsula lotzeko bide nagusietako bat izan da erromatarren garaiaz geroztik.

### Harresia

Harresia Erdi Aroko hiribilduetako defentsarako osagarri garrantzitsuena da. Hi-

# 1256. urtean,

**Gaztelako Alfontso X. Jakituna erregeak, hiri-gutuna eman zion Segurari.**



ri-gutunetan adierazita dago nolakoak izan behar zuten babesteko itxitura horien ezaugarriek. Europa osoan, era guztietako harresiak eta itxiturak eraiki zituzten. Haien helburua hiribilduko lurraldea mugatu eta babestea zen.

Gipuzkoako hiribilduek ez zeuzkaten Europakoek maiz eduki ohi zituzten osagarrietako batzuk, hala nola dorreak eta bastioiak. Gaztelurik ere ez zen izaten, eta hiri-eremua ez zen auzotan edo egoitza-gunetan banaututa egoten.

### Borrokak

XIII. eta XV. mendeen artean elkarren aurka zeuden gizarte-talde batzuen arteko borrokak izan ziren. Borrokaldi haien arrazoiak ugariak ziren eta, haien artean, nagusietako bat hiribilduen gaineko boterea eta kontrola eskuratzea zen. Leinuek (ahaide nagusiek) bandoak sorrarazi zituzten eta bando bakoitzean hainbat kide izaten zen.

XIII. mendearen lehenengo herenaren aurretik, bi bando nagusiak oinaztarrak eta ganboatarrak ziren. Garai hartako liskar ugariak landako jauntxoek eta hiribilduen artean ez ezik, hiribilduetan finkatutako leinuek kideen artean ere izaten ziren.

XV. mendearen erdialdean Gipuzkoan gatazka-egoera izugarri larria bihurtu zen. Hiribilduek ezin izan zuten gatazka hoietatik kanpo geratu, ahaide nagusiak kontzejua menperatzen ahalegindu zirelako, beren familien boterea hedatzearen.

Gertaerarik larriena Arrasate erre zutenekoa da. Ganboatarrak sua eman zioten 1448ko ekaiaren 23an, Loiolako jaunak lagunduta. Segurari dagokionez, Juan Lopez de Lazcano oinaztarraren presioak jasan behar izan zituen XV. mendearen erdialdean.

## Gizarte taldeak eta Kontzeju mahaia

Hasieran, gizarte-talderik garrantzitsuenak kapareak eta baserritarrak ziren. Kapareak, zaldunak eta ezkutariak zergak ordaintzetik salbuetsita zeuden. Pribilegiatuak ziren eta karguak bete ohi zituzten udal-gobernua. Baserritarrak ugariak ziren herritarren artean eta zergak edo "petxak" ordaintzera behartuta zeuden.

Hiribilduak garatuz joan ziren heinean, beste talde batzuek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten; hala gertatu zen artisau, merkatari eta letraduekin. Beste talde batzuk gutxiengo dira Gipuzkoako hiribilduetan: zaldunak, ezkutariak eta erlijiosak.

XIII. eta XIV. mendeetan, hiribilduko gobernua independentea zela esan liteke, Erregearekiko menpekotasunik ez baitu. Kontzejua da herriaren bizitza arautuko duena, merkatu, justizia eta segurtasun gaietan. Kontzejurik zaharrenak irekiak ziren; partehartzaile guztiek zeukaten boto eskubidea.

Behe Erdi Arotik, herriko gobernuaren funtzioak espezializatu egin ziren, eta erregetzako karguak sartu ziren herriko administrazioan. Honela, kontzeju itxiak, kontzeju irekia ordezkaturiko du. Herritar ahaldunek zeukaten bertan parte hartzeko ahalmena (kapareak, merkatariak...)


Kontzejuko kargurik garrantzitsuenak ondorengoak dira:

### Alkate arrunta

Eginkizun judizialak zituen, hiribilduko epailea baitzen. Denborak aurrera egin ahala, kargu murriztailegoa bilakatu zen, hautetsiari ondasunen jabe izatea eskatzen zitzaiolako, haren egoera ekonomikoaren egonkortasuna ziurtatzeko.

1397tik Segurak Ermandadeko alkatea izan zuen. Arruntak ez bezala, hiribilduetatik kanpo gertatutako krimenak epaitzen zituen, hau da, bideetan eta inguruetan gertatutakoak. Haren jurisdikzioak oso barrutik zabala hartzen zuen eta kontzejua aukeratzen zuen San Joan egunean.

Hiribilduak gainera, udal-lurraldearen buru zenez, Ermandadeko alkatearen bidez, Gipuzkoako lurraldearen zati handi bat kontrolatzen zuen.



### Errejidoreak

Kargu hau XV. mendearen erditik agertzen da jasota. Ordenantzetan alkatearen zerbitzupeko funtzionario gisa agertzen ziren, lagundu egiten zioten ordena publikoaren alorreko eginkizunetan eta baita merkatuak hornitu eta ikuskatzeko zereginetan ere. Urtebeterako kargua izaten zen.

### Zinpekoak edo fielak

Kontu ekonomikoez arduratzen ziren batik bat. 'Zinpeko' zeritzan komunitatearen interesak defendituko zituztela zin egin behar izaten zutelako. Urtebeterako hautatzen zituzten. Eginkizun betearazleak ere bazituzten (egungo udaltzailek dituzten antzekoak) eta alkatearen eta errejidoreen aginduak betetzen zituzten.

### Eskribaua

Kontzejuko eskribaua hiribilduan kreditatuta zeudenen artetik aukeratzen zen. Udal-agiriak erredaktatu eta udalbatzaren erabakiak idatziz jasotzen zituen. Aukeratutako kargua zen eta urtebete irauten zuen.

### Maiordomoa

Kontzejuko sarrera eta gastuak kontrolatzen zituen eta urtebeterako aukeratzen zen.

**H**asieran gizarte-talderik garrantzitsuenak kapareak eta baserritarrak ziren.

## Kofradiak eta gremioak

Kofradiak edo gremioak lanbide berean ziharduten langileen elkarteak ziren, eta beraien eskubideak babesteko helburuz sortu ziren. Ohikoenak arrantzaleenak eta artisauenak ziren. Kofradia guztiek, besteak beste, helburu erlijiosoa zuten.

Kofradiak hierarkikoki zeuden antolatuta: maisuak lehenik, ofizialak ondoren eta aprendizak azkenik. Babes ekonomikoa ematen zieten kideen emazte eta seme-alabei. Elkarteotako nagusiek eginkizun garrantzitsua izaten zuten hiribilduetako gobernuan.

Santu baten izena hartzen zuten eta festak, prozesioak eta beste hainbat ekitaldi ospatzen zituzten haren omenez.

Beste kofradia batzuk izaera erreibindikatibo nabariagoa zutela sortu ziren, Erraztiolazako San Andres Kofradia kasu. Segurako 115 bizilagunek sortu zuten 1374an, hiribilduaren jurisdikzioa babestu eta jauntxo-en boterearen esku-hartzea eragozteko.

## Burdinaren garrantzia

Gipuzkoako berariazko industriarik zaharrena burdingintza da. Segura eta bere ingurunea ere (Legazpi, Zegama, Zerain) burdinaren eta burdinolen lurra da. Olagizonen hiribilduko aristokrazia osatzen zuten eta auzi ugariak izaten zituzten baserriarrek basoetako egurra ustiatzeko eskubidea bereganatzearen, batzuek burdina egiteko eta besteek bizirauteko beharrezkoa baitzuten.

Horrez gain, Seguran erremintari ugari zegoen; izan ere, XVI. mendea bukatu arte, errege-bideko zati horretatik beste inon baino ibiltari gehiago igaro ohi ziren, eta zaldizkoentzako nahiz postarientzako bide nagusia zen.



## Erdi Aroko hirigintza

### Harresiak

Harresiak harriormaz eraikitzen zituzten. Premiazkoa baldin bazen, hormatal batzuk egurrez eta eraispeneko materialez sendotu ohi zituzten, Hondarrribian 1476an egin zuten bezala, frantsesek egindako setioaren aurrean defenditzeko.

Hiribildu gehientsuenetan harresiak eraiki eta mantentzea herritarren kontua izaten zen, bai obraren kostua, bai eraikitze materiala.

Mugaldeko hiribilduetan, berriz, erregeek pribilegioak eta zerga salbuespenak onartu ohi zituzten lan horiek finantzatzearren.

### Atariak

Ataria harresiko osagarri nagusietako bat da, bi mundu harremanetan jartzen dituelako, hirikoa eta landakoa, hain justu. Beraz, harresiak berak bezain garrantzitsuak, ateen kokalekua, kontserbazioa eta defentsa izaten ziren. Hori dela eta, ate nagusiak dorreek babestuta egoten ziren. Ate nagusiak 'Ave Mariatik' egunsentiraino itxita egoten ziren eta haien kontrola kontzejuko urteko ordezkarien esku egoten zen, hau da, alkatearen eta errejidoreen esku.

### Trazaketaren morfologia

Erdi Aroan sortutako hiribildu gehienek plano erregularra eta lurraren ezaugarrietara moldatua izaten zuten. Hiri-trazadura jakin baten arabera eraikitzen zituzten, alde zurretik ezarritako arauak jarraitzen zizutela zirudien.

Seguraren kasuan, plano erregularra itxura trianguluarrarekin da: Hiru kale izaten dira eta mutur batean elkartu egiten dira, kale bakar baten irudipena emanez.

Itxura horretako hiribildurik esanguratsuenetako bat Segura da. Beste batzuk Azpeitia eta Erreneria dira.

### Orubeen partelazioa

XIII. eta XIV. mendeetan, lur-eremua antzeko zatitan banatuta egoten zen, 8 metroko zabalera eta sakonera aldakorrekok, hiribiduaren trazaduraren morfologiaren arabera. Orube bakoitza familia batek bereganatu ohi zuen. Baina gizartearen hierarkiaren, presio demografikoaren eta suteek eragindako suntsipenen ondorioz, "harresiz barruko" eremuak aldatu egin ziren: batetik, noblezia elkarren ondoko orube batez baino gehiagoz jabetu zen bere jauregiak eraikitze, eta, bestetik, herri xeheak orube erdien gainean edo orube estuagoetan eraiki behar izan zuten. Horrela, etxebizitzaren altuerak gora egin zuten eta, leku gehiagoren beharrak eraginda, errebalak sortu ziren.

### Gune pribatuen eta publikoen arteko gatatzak

XV. mendean, Gipuzkoako hiribildu askoren hirigunean leku gutxi izaten zenez, bizilagunak pixkanaka harresiz barruko gune publikoak betetzen hasi ziren.

Auzokideek hobetsitako lekuak kaleak eta kantoiak izaten ziren. Hala, etxebizitzaren aurrealdeak gero eta aurrerago egin zuten, oinezkoak ibiltzeko eta merkantziak garraiatzeko lekuaz jabetu arte.

XV. mendean hiribilduak kiskali zituzten suteen ondoren, herriak berriro eraiki behar izan zituzten eta kontzejuek hobeto antolatuta eta irekiago egitea erabaki zuten. Beste eredu urbanistikoko bat nagusitu zen, Errenazimendu garaia zegoena.

# Erdi Aroko festa

2004ko maiatzaren 3an Plaza Zaharreko Lagunak elkarte bezala sortu zen, 12 pertsonen osaturiko talde batek, 'Segura bere erroetara murgilduz' Erdi aroko festa antolatuz hasi zirenean. 2005. urtean, jadanik, 60 pertsona izan ziren festa honetan parte hartu zutenak eta 2006. urtean herriaren 750. urteurrena dela kontuan hartuz, 300 pertsona inguruk parte hartuko dute uztailaren 15ean eta 16an ospatuko den Erdi Aroko jaietan.

Talde honen helburua ekitaldi hau urtero errepikatzeaz gain, garai bateko aberastasun kulturala berreskuratzea da, horretarako etxeko atarietan tresneria zaharren erakusketak antolatu dituzte eta berezitasun aipagarriena bezala, parte hartzaile guztiak segurarrak direla azpimarratu beharra dago.



*Herriko bainbat atari prestatuko dituzte garai bateko langintza desberdinen erakusleibo.*

## Egitaraua

### Uztailak 15, larunbata:

**16:00etan:** Atari irekitzea. Txistularien kalejira eta txalaparta, plaza zaharrean eta goiko plazan.

**16:30etan:** Gari jotzea, plaza zaharrean. Ikuskizunak, pilotaleku zaharrean.

**18:00etan:** Arkulariak. Ondoren zetzeri erakustaldia.

**21:00etan:** Atarien itxiera.

**22:00etan:** Antzerkia.

### Uztailak 16, igandea:

**09:00etan:** Goiz eresia. Txistularien kalejira eta txalaparta, plaza zaharrean eta goiko plazan.

**10:00etan:** Meza nagusia, latinez.

**11:00etan:** Atari irekiera ofiziala agintarien eskutik.

**Ondoren:** Perratzailea lanean.

**14:00etan:** Atari itxiera.

**14:30etan:** Erdi Aroko bazkaria.

**17:00etan:** Atari irekitzea. Ikuskizunak, pilotaleku zaharrean. Umeentzat jolasak eta arkulariak.

**21:00etan:** Atarien itxiera.

## Antzerki herrikoia

Joan Agirre Sorondok prestatuturiko gidioa erabiliz, herritarrek 'Segura 1256-2006' izena duen antzezlanaren antzeztuko dute, uztailaren 15ean, gaueko 10etan herriko plazan. Segurako pasarte historiko ezberdinak jorratu dira, besteak beste: jatorria, San Andres auzoa, sorrera, Seguraren ziurtasuna, ahaide nagusiak, Aste Santua, iragana eta oraina. Segurako abesbatza lagun dutela ondorengo antzezleak arituko dira:

Kazetaria	Arantxa Arrondo
Erromatarra	Imanol Agirre
Erromesa	Xabier Alustiza
Akitaniako printzesa	Amparo Salceda
Morroia	Jon Korta
Biztanleak	Gurutz Goikoetxea, Lurdes Imaz, Ageda Zeberio
Mandataria	Koldo Alustiza
Jauntxoa	Imanol Agirre
Eskribaua	Xabier Alustiza
Lazkaoko jauna	Jon Korta
Apaiza	Bixente Albusu
<b>Inguruetako herrien ordezkariak:</b>	
Legazpi	Gema Etxaleku
Mutiloa	Joxe Mari Alustiza
Zegama	Laura Ormazabal
Idiazabal	Isabel Iparragirre
Gabiria	Joxe Manuel Etxeberria
Ormaiztegi	Ramon Ieturia



*Xabier Albisu eta Ramon Amundarain, Euskal Herria Nafarroa ekimeneko partaideak.*

## 750 urte, zer ospatu behar da?

*Euskal Herria Nafarroa ekimenaren ustez badago zer ospatua, baina ez gure herriaren konkista*

**G**aztelak Nafarroako erreinuaren zatiketa eta konkista burutzeko hainbat hiribildu sortu zituen duela 750 urte, tartean Segura eta Ordizia. Herri horietan Euskal Herria Nafarroa ekimena sortu dute, momentu historiko horren azterketa kritikoa egiteko. Xabier Albisu segurarra eta Ramon Amundarain ordiziarra ekimeneko kide dira eta beraiek azaldu digute ospakizun hauen inguruan egiten duten azterketa.



**zuhaizki**  
S A  
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurrira.



**JANTZI ZURE ETXEA  
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55  
Cuatrovientos Industrialdea, 1  
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3    ORDIZIA    ☎ 943 16 03 04

### Zer da Euskal Herria Nafarroa ekimena?

750. urteurrena dela medio, herri dezentetan festak ari ziren antolatzen tartean Segura. Ospakizun horri, kokapen historiko erreala falta zaio. Herria zaharra delako soilik ospatu egin behar al da?


Kanpezu, Agurain, Tolosa, Hondarribi, Gasteiz, Segura, Ordizia, Hernani... herri bakoitzean bere aldetik ari ginen lanean eta Euskal Herria-Nafarroa ekimenaren bidez lotura sortu dugu. Kokapen historikoaren azterketa egin dugu, adituekin.

### Zer gertatu zen duela 750 urte?

Iberiar Penintsula, Gaztelako erresuma, Nafarroako erresuma, Aragoiko erresumaz osatua zegoen. Gaur egungo Euskal Herriaren kokapena, Nafarroako erresumak hartzen du gutxi gorabehera. Gaztelako erregeari interesatzen zitzaion Nafarroa erdi-erditik pasatzea, Europako bidea irekitzeko.

Nafarroako erresumak bere inguru guztian defentsarako gazteluak zituen prestatuta, baita barneko hainbat bailaretan ere merkataritza babesteko. Goierri horietako bi gaztelu zeuden, bat Ausa Gaztelun eta bestea Ataungo Jentilbaratzan.

1199ko udaberrian hasi zuen Alfonso VIII.ak Nafarroa mendebaldearen konkista. Guda horien ondoren,



*Gaur egungo Euskal Herriko mapan Gaztelako gudarosteen konkista eta hauek Europarako ireki zuten bidea irudikatuta.*

Nafarroako erresuma gutxi gora behera gaur egun eza-gutzen dugun Nafarroak duen lurraldearekin geratu zen. Gipuzkoa eta Nafarren arteko borroka konkista horren ondorioak dira eta, gainera, Goierri bi erresumen arteko mugaz zen.

### Eta testuinguru horretan sortu zituzten Ordizia eta Segurako harresidun herriak.

Interes ekonomikoengatik, bide nagusi bat ireki nahi

zuten Gaztelatik artilea Europara eramateko. Horretarako zati batzuetan Santiago bidea aprobetxatu zuten. Nori interesatzen zaio merkataritza indartzea? Erregeari, dirua jasozeko eta egurra emateko. "Baimena ematen dizuet astero merkatu bat egiteko", beti inposizioa dago. Horren ondorioz etorri ziren tesi militarrek, hiri-gutuna, akulturizazioa, kastillanizazioa.

Bide nagusia irekitzeko,

herri harresidunak eta merkataritzako guneak sortu zituzten, normalean egun bateko denbora tartearrekin. Konkistatu gabe gelditu zen Nafarroatik, defentsa egingo zutenak.

Ospatu egin behar al dugu gure jatorrizko Euskal Herria bitan egitea? Hausnarketa egin dugu. Gertakizun historikoa da bai, duela 750 urte sortu ziren Segura eta Ordizia. Historia horren aurrean, esplikazio sakon



**Mendizabal, C.B.**  
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)  
659 644 221 (Xabi)

**Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA**



**ANZIZAR, S. A.**

**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
[www.anzizar.com](http://www.anzizar.com) ☎ 943 88 17 00 Faxes.: 943 88 48

bat egin dugu, garaiko egoerarena, nola bizi zen konkista aurreko jendea, zer zegoen garaian hartan, nor agintzen zuen...

### **Beraz, gure herriaren zatiketa eta konkista ospatzen ari garela diozue.**

Euskaldun bezala zer egin behar dugu? Ospatu? Arbuia? Edo egoera hau aprobetxatu, nolabaiteko sakontze historiko bat egiteko: nondik gatozen, non gauden eta nora goazen planteamendu sakona egin behar dugu. Guk oroitzapen kritiko bat egitea erabaki dugu. Arbuigarria da baina gaurko egunean aprobetxatu behar da gauzak bere lekuan jartzeko, eta ez besterik gabe ospakizunetan hasi.

Antolatzaileen lehen baldintza da, gauzak bere lekuan ondo kokatzea eta ondo kokatu ondoren, gero antolatzea. Antolatzaileen lana zalantzan jartzea baino gehiago interesatzen zaigu, benetan ondo kontestualizatzea.

### **Historia aztertuta, zuen ustez bada nor omendua.**

Bai badugu nor omendua: Erraztiolatza herrixkako herritarrek, XIII. mendean Gaztelaren konkista garaian, ejerzito kanpotarren menpe erori eta beraien morroi bihurtu zituztenak. XVI. mendean berriz ere Gaztelaren aurka borrokatu ziren Nafarroa Garaiko euskal herritarrek. XIX. mendean gerra karlistetan euskal nortasuna defendatzen aritu ziren herritarrek. XX. mendean, 1936an espainiar faxisten aurrean demokrazia, errepublika eta Euskal Herria defendatu zuten gudariak. Azken hamarkadetan Euskal Herriaren alde borrokatu, kartzeleratu eta bizitza emateraino iritsi diren euskaldunak.

Baditugu omentzeko, urte askotako, ehundaka urtetako lan ixilean, mendez mende, inongo papere-tan agertu gabe, euskal kul-



## **Seguraren sorreran Erraztiolatza izena aipatzen da**

Alfontso X. Gaztelako erregeak Segura hiribildua sortu aurretik bazen bertan Erraztiolatza izeneko herrixka. "Elena Barrera historialariaren hipotesia da, herri gehienek hartu dutela izen misto bat, adibidez: Villafranca de Ordizia. Konkistatzaileak jartzen zion izena, lehen zegoen asentamenduaren aurretik jartzen omen zuten. Seguraren kasuan, San Andres baserriaren inguruan zegoen lehenengo he-

rrixka. Herri berriak, harresidunak, sortzen zituztenean, jauntxoek erasoetatik babesteko Anaidiak sortzen zituzten. Anaidi horiei ematen zitzaion herri zaharren izena. Beste herri guztietan horrela izan zen, Hermandad de... Segurako kasuan, San Andres de Erraztiolatza aipatzen da. Hipotesi nahiko fidagarri bezala, Seguraren aurreko izena Erraztiolatza zela esan liteke", argitu du Albisuk.

turaren altxorra gureganaino iristea posible egin duzuen emakume eta gizon xumeak.

Badugu zer ospatu ere, hainbeste eraso eta zapalketa izanik ere, oraindik bizirik delako euskal nortasu-

na eta oroitzapen historikoa. Horrelako genozidio kulturala jasanik ere, bizirik delako oraindik gure hizkuntza.

Horrenbeste maltzurkeri, konkista, saldukeria, asimilazio saiakeraren gaine-

tik, bizirik delako oraindik Euskal Herria. Zergatik ote da hori? Gure Herriak oso sustrai sakonak eta ugariak dituelako eta desagerraraziko duen erasotzailerik ez delako sortu, ezta sortuko ere.

### **Zer ari zarete antolatzen?**

Historia azaltzen duen trip-tiko baten 10.000 aleko kaleratuko ditugu. Ekimenaren web orria berehala jarriko dugu martxan. Nabarralde aldizkariak ere monografikoa egin du gai honen inguruan.

**B**adugu zer ospatu, hainbeste eraso eta zapalketa izanik, bizirik delako euskal nortasuna eta oroitzapen historikoa.

*Igor Barrero lazkaotarra pianoa protagonista bakarra den diskoa grabatzen ari da*

# Sentimentuz betetako diskoa



17 urte ditu Igor Barrero lazkaotarrak. 6 urte zituela hasi zen piano ikasketak egiten. Aurretik ere, jostailuzko organuari doinu bat baino gehiago ateratzen saiatu izan zen.

Solfeo eta harmonia ikasketak eginak ditu. Piano ikasketetan ere urteak daromatza, baina pianoa ikasten “inoiz ez da bukatzen ikasten”, dio Igorrek.

## Lehen diskoa

Lehenengo ikasketak Nerea Barandiaranekin egin zituen. Orain, Alfredo Pelaez du irakaslea. Ikasitakoa praktikan jartzen ari da Igor Barrero, bere irakaslearen etxean, diskoa grabatzen ari baita. Igor Barreroren musika ezagutaraztea da diskoaren helburua. 500 ale merkaturatuko, egile-eskubide eta guzti.

Diskoa grabatzearen esperientziaz galdetuta, zaila dela erantzun digu lazkaotarrak, “abesti bera behin eta berriz errepikatu behar da eta”.

**Igor Barrerok bere logelan du pianoa. “Ordu asko sartzen ditut. Egunero, goiz eta arratsaldean jotzen dut”. Musika entzuteko astia ere hartzen du. Hip-hop eta pop musika gustatzen zaio. La Oreja de Van Gogh musika taldea, Alex Ubago...**

Bere-berea du diskoa Igorrek. Kantu guztiak berak sortutakoak dira. Bere gogo-aldartearen arabera sortu dituen doinuak dira. “triste banago, abesti tristeak sortzen ditut. Abesti lasaiak dira gehienak, biziak ere badaude. Musika erromantikoa da”, azpimarratu du lazkaotarrak. ‘Lloraba por mí’, ‘Seguiré soñando’... dira ‘Sentimientos al piano’ diskoko hainbat kantu.

Piano doinua bakarrik entzun ahal izango da dis-

koan. “Efekturen bat ala beste egongo da baina”, gaineratu du.

Bakarkako lana da Igorrena. Dena den, taldean ere jarduna da, Euskal kantu txapelketan. “Musika Eskolako konbo taldea aurkeztu ginen eta taldean jotzen ikasteko balio izan du esperientzia horrek”, zehaztu du.

## Marrazketa bigarren zaletasuna

Musikaz gain, badu beste zaletasun bat Igor Barrerok:

marrazketa. Batez ere, arkatzez margotzea gustatzen zaio. Ordenadoreko Photoshop programa ere gustatzen zaio eta bere diskoaren azala, Igorrek berak egin du. “Lazkaoko paisaje bat, presa, pianoa eta nire irudiaren itzala azaltzen dira, nire firmarekin”.

San Benito ikastolan laugarren batxilergoko ikasketak amaitu berri ditu eta Arte Grafikoen bidetik ikasten jarraitzeko asmoa dauka lazkaotarrak, “musikatik bizitzea oso-oso zaila baita”.

**PSIKOLOGI KLINIKOA**



Jose Ramon Pato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 42001

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
**JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN**

Helduen,  
umeen,  
bikoteen eta  
sexologi  
tratamenduak



**biok** kudeaketa  
fiskala  
kontablea  
merkatala  
laborala

Tel 943 88 44 00  
Faxa 943 80 51 27  
www.biokzerbitzuak.com  
Ordizia Goierri, 12



# Jaione eta Gorka Sasieta

*Euskal Herriko mendiko lasterketako txapelketan, emakumezkoetan, 3. egin du itsasoarrak*

**S**emeak 18 hilabete bete ondoren, berriz ere kirolari ekitea erabaki du Jaione Sasieta itsasoarrak. Aurretik mendiko bizikletan ibiltzen zen; aurten Aizkorriko mendi maratoia izan du helburu. Ondoa, Gorka anaiaren babesa eta animoa izan du. Behin hasita, bi urtean behin egiten den 100 kilometroko ‘Hi-

ru Handiak’ ere egin dute. Jaione, lehen emakumezkoa izan da. Denboraldi amaieran, Euskal Herriko mendiko lasterketako txapelketan, 3. egin du; sailkapen orokorrean ere bai. Aurtengo beroaldiarekin jarraituko duen ala ez daki oraindik Jaionek, baina Gorka hor izango du ondoan jarraitu dezan animatzeko.



Mendiz ingururatuta dago Itsasoko Karobi etxea. Kizkitza, Izpegi... Urrutira joan gabe, etxe ondoan, malde-tan gora eta behera, oinez nahiz korrika, entrenatzen dute Jaione eta Gorka Sasie-ta anai-arrebek. 33 urte ditu Jaionek; 28 Gorkak. Mendiarekin lotutako kirolak aukeratzen dituzte.

Mendiko lasterketetan eta iraupen luzeko probetan parte hartzen aspalditxo hasi zen Gorka. Zegama-Aizkorri mendi maratoian ere hirutan hasi eta eta bukatu du. Aurten, lagun berezia izan du gainera: Jaione arre-ba. "Aurten ez neukan as-morik parte hartzeko, baina Jaione animatu zenez, bera laguntzea pentsatu nuen". Aizkorriko proba prestatze-agatik, beste mendiko las-terketa batzuetan ere parte hartu izan dute. Gustura daude mendiko lasterketa-ko esperientziarekin.

**Denboraldiko azkeneko proba, Izabako Euskal herriko txapelketakoa izan da.**

**Jaione:** Uztailaren 2an jokatu zen Izabako Camille Extreme proban 3. egin nuen, emakumezkoetan. Sailka-pen orokorrean ere postu berean gelditu naiz. Ibilbi-dea oso polita, baina gogorra zen eta hasieran tripata-tik nahiko gaizki ibili nin-zen. 15. kilometroan 6. neska nintzen, baina errekupe-raturaz joan nintzen lasterke-tak aurrera egin ahala.

**Aizkorriko maratoia ere**



## Zegama-Aizkorri maratoia

Bost ordu, 28 minutu eta 6 segundu behar izan zituzten Zegama-Aizkorri mendi maratoia burutzeko. Gorkak iaz 70. postua lortu zuen maratoi honetan, 5:05:56 denborarekin, baina aurten arrebarentzat erbi lanak egiten aritu da. Zegama-Aizkorri mendi maratoia berezia da Gorkaren esanetan: "Beste karreratan inoiz ez dut hainbeste jende ikusi. Oñatin agian, zertxobait. Oso berezia da Aizkorrikoa".

**egin zenuen. Gogorra izan al zen?**

**Jaione:** Beno, bai. Polita. Aurretik ibili ginen beste karrera batzutan, entrena-tzeagatik. Aizkorrikoa egin eta entrenamenduak aprobetxatuz, Hiru Handiak egitea pentsatu genuen.

**Eta 'Hiru Handiak', hau da, Aizkorri-Anboto-Gor-bea, zer moduz?**

**Jaione:** Ezberdina izan zen. Luzea.

**Gorka:** Niretzat ere Aizkorri baino gogorragoa da. Beharbada azkarregi hasi ginen. 100 kilometro dira eta oso luzea egiten da.

**Korrika ala oinez egin zenuen?**

**Jaione:** Ahal zen bezala.

**Gorka:** Goitik behera korrika eginez-eta ibili ginen. Aizkorri baino erritmo sua-beagoan baina hala ere... Gaueko 12etan hasten da ibilaldia eta gaua ere luzea

egiten da. Eguraldi nahiko ona egin zigun baina gaua luzea egiten da.

**Aurreneko aldia al zenuen 'Hiru Handiak'?**

**Gorka:** Bai. Gainera aurten ez neukan pentsatuta Hiru Handiak egitea. Noizbait egingo nuela bai, baina arrebak animatu nau, aurten ez bada inoiz ez zuela egingo eta.

**Entrenamenduak nola egiten dituzue, hemen in-**

ainaretxeberria

**HANKARA**  
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946  
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN



**SILVIA MIRASCASAYAS**  
ODONTOLOGOA  
KOL. Zka: 649 RPS-144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



**www.xetai.net**  
Zurgintza eta altzarigintza zure neurria  
Tel.: 658 70 99 22 Faxa: 943 88 85 41  
BEASAIN

### guruan ala beste proba batzutara joanez?

**Jaione:** Beste proba batzuetara joanez bai, baina gehienbat hemen etxe inguruan. Kizkitza eta Izazpi aldera astean zehar, eta asteburuetan, Txindoki eta Aizkorri aldera joanez. Maratoia ere egin genuen aurretik.

**Gorka:** Bai pusketaka, eta bai osorik.

### Semea motxilan hartuta entrenatu al duzu?

**Jaione:** Batzutan joan izan naiz, baina asko pisatzen du. Senarrarekin utzita joaten naiz.

### Prestatzailearekin aritu al zarete entrenatzen?

**Jaione:** Mendiko bizikletan ibili nintzen prestatzaile batekin eta han ikasitakoarekin ari naiz. Ibili beste misteriorik ez dago.

### Zu Gorka, arrebari laguntzera joaten zara, edo arreba zure mailan dago...

**Gorka:** Bai antzera gabilta. Nik iaz denbora hobexeara egin nuen Aizkorri, baina ez askoz hobea. Beharbada Aizkorri arte azkarreago joango nintzateke, baina azkenerako gogorra egin zitzaidan, beroa ere izan zen.

**Jaione:** Erritmoa markatzen laguntzen dit Gorkak. Aratzen ni beharbada azkarregi joango nintzatekeen eta gero komeriak. Baina Gorkak aurretik egina dauka eta ezagutzen duenez, ondo



## Hiru Handiak

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hiru mendirik altuenak igotzen ditu Hiru Handiak probak. Hau da, Aizkorri, Anboto eta Gorbea. Guztira 100 kilometro, eta 24 orduko denbora tartea. Sasieta anai-arrebek, 16 ordu, 15 minutu eta 10 segundu behar izan zituzten hiru mendiak igotzeko. Aizkorri adibidez, gauze igotzen dute mendizaleek, buruan linternak jarrita. "Urbetik Aizkorri aldera begiratu eta argizko bide bat ikusten da", dio Gorkak. "Hurrengoan Urbira joango gara ikustera, oso polita da eta", gaineratu du Jaione.

etortzen zait. Mendiko bizikleta ezberdina da, denbora motzean topera ibili behar da. Mendiko maratoia proba luzeagoa da eta idarrak neurtzen jakin behar da.

**Gorka:** Ibilbidea ezagutze-

ak ere asko egiten du.

### Elkarri animoak ematen joaten al zarete?

**Jaione:** Anaia botillero eramaten dut. Gehienez bera aurretik joaten da, erritmoa markatzen.

### Behin hasita, lasterketa gogorak aukeratu dituzue.

**Gorka:** Fama gehiena ere Aizkorri hartu du. Jaioneri ere, Aizkorri behin eginda izatea gustatuko litzaiokeela esaten zuen.

**Jaione:** Helburua ez zen mendiko lasterketetan hastea, Aizkorri behin egitea baizik. Baina aurretik hasi ginen, entrenatzeagatik ba-

**A**naia gehienez aurretik joaten da, erritmoa markatzen.

**Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea**

**Altzariak neurria**  
**Mota guztietako aroztegi lanak**  
**PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa**

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47  
**Antzizar-Katea, 5 BEASAIN**

## Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

**Goierri** 24 euro  
 **hitza** 60 euro  
 **Goierri** + **hitza** 65 euro

Egin  bat aukeratutako kaxan

Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Herria: ..... NAN: .....  
Telefono zenbakiak: .....  
Kontu zenbakia(20 digitu): .....

Bidali txartel hau: [Goierritarra](#), [Urbialde plaza 7 behea](#), [Beasain](#)

tera eta bestera joaten, eta engantxatu egiten zara. Giro polita egoten da.

**Gero eta lasterketa gehiago daude. Aizkorriko maratoiaren ondorioa al da?**

**Gorka:** Modan jarri dira horrelako probak.

**Jaione:** Aizkorrikoa sortu aurretik, hemen inguruan ez zegoen halako probarik.

**Gorka:** Lehen Gorbean egiten zen horrelako bat, baina egiteari utzi egin diote. Ez dakit zergatik.

**Jendea ere gero eta prestatuago ikusten da horrelako probetan.**

**Gorka:** Bai. Aurten Aizkorrin, beroaren eraginagatik-edo, ez da hainbeste nabaritu baina beste beste probatan geroz eta denbora hobeak ikusten dira.

**Aurrera begira zein asmo daukazu?**

**Jaione:** Hurrengo urterako momentuz ez daukat asmorik. Aurtengo beroaldia izan da nirea.

**Gorka:** Animatuko dugu jarraitzera. Neguan ere ibiltzen naiz mendian, elurretan. Ondoren hiru bat hilabetean korrika ibilita, gero udaberriaren karrera batzutan aritzea espero dut.

**Zein litzateke zuen ametsa?**

**Jaione:** Nik dagoeneko betea daukat, hortik aurrera ez dakit.

**Gorka:** Alpeetan badago Mont Blancoko itzulia, eta hura egitea dut amets, 150 kilometro dira. Baina orain, Hiru Handiak eginda, 100 kilometrokoa probatuta, gehitxo izango ote den iruditzen zait. Esperientzia bezala probatzeko beharbada, baina ez dakit. 3.000 metro-raino iristen da eta altuera kontutan hartu behar da.

## Mendiko bizikletan

**Mendiko lasterketetan hasi aurretik, mendiko bizikletan ibiltzen zinen.**

**Jaione:** Urte askoan mendiko bizikletan ibili izan naiz. Baina utzia neukan, haurra izan nuenean. Bizikletan serioago ibiltzen nintzen, prestatzaile eta guzti. Haurrak 18 hilabete bete ditu dagoeneko eta berriz kirola egiten hasi naiz. Batez ere Aizkorrin korritu nahi nuen. Bi urtetan ikustera joanda, behin egitea behintzat nahi dut.

**Zer moduz moldatzen zinen mendiko bizikletarekin?**

Euskadiko eta Espainiako txapelketak jokatzeko nituen mendiko bizikletan. Sari bat baino gehiago irabazi izan nuen. Dirutan ez zen saririk egoten, afizioagatik aritzen zinen. Mendiko lasterketetan behintzat, emakumezkoek eta gizonezkoek sari berdinak dituzte. Mendiko bizikletan, karretara joan eta neskaren bat-edo bilatzen zenuen izaten zen. Mendian neska gehiago animatzen da.

**Errepideko bizikletan ibili izan al zara?**

Bizikletarekin errepidean ere ibiltzen nintzen, baina aspergarria egiten zitzaidan. Mendia politagoa da. Errepidea, arriskutsua izateaz gain, aspergarri samarra ere bada.

**Zerekin gelditzen zara: mendia, mendia korrika ala mendiko bizikleta?**

**Jaione:** Ez dakit. Mendiko



bizikletan urte mordoxxa batean aritu naiz eta gutxiago errekonozitua da. Mendian, gauza gutxiago egin

ditut eta askoz ere oihartzun handiagoa dauka. Modan dagoelako izango da. Politagoa, mendiko bizikleta da. Baina ez nuke jakingo bat aukeratzeko, ezberdina dira. Bizikletan gehiago gozaten da aldapa behera. Biekin geldituko naiz. **Amatasuna eta kirola nola lotzen da?**

Beno, ondo. Tartean, ahal denean, entrenatu eta ondo. Beti denbora falta izaten da baina zerbait nahi baduzu, lortzen da. Senarra eta umea ere probak ikustera joaten dira eta ondo.

**Haurrak zer esaten du?** Ni imitatzen aritzen da. Arropak jantziz gero antzematen du zertara noan.

**A**ma izatea eta kirola ondo lotzen dira. Beti denbora falta izaten da baina nahi izanda, lortzen da.

**Olagi** Urte guztian zabalik  
Sagardotegia Sagardotegiko meua  
Jatetxea Eguneroko menua Karta

© 943 88 77 26 ALTZAGA



*Estebe Ormazabal,  
beasaindar brasildarra*

## “Kanpoan bizi garen euskaldunoi, bizi berria eman digu internetek”

**A**buztuan 10 urte beteko dira Estebe Ormazabal beasaindarra Brasilerara joan zela. Aurretik, Estatu espainiarrean, Ingalaterran, Irlandan, Danimarkan, Italian eta Suitzan ibili zen, Nestle multinazionalean. Gaur egun irakaslea da eta denbora gehixeago hartu dute Sera emaztearekin, 7 urteko Haritzekin eta 6 hilabeteko Amandi semearekin egoteko. Lauak etorri dira Beasaina, eta tartetxo bat egin digu Sao Paoloko Euskal Etxeko lehendakari eta euskara irakaslea denak.

GRAFICAS  
**EGUZKI**  
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17  
T/F 943 88 94 82

**Jauregi**  
TOLDOAK

INSTALATZAILE OFIZIALA

**laza** LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

Brasilgo kamiseta jantzita etorri da GOIERRITARRAREN bulegora Estebe Ormazabal. Bi urte egin ditu jaioterriira itzuli gabe, baina familia hartuta etorri da familia-rengana eta lagunengana.

Nestle multinazionalari esker joan zen 1996ko abuztuan Brasila, Sao Paulo hirira. Ikerketa arloan lan egin izan du, kalitatearen hobekuntzan. Urtebeterako joan zen, baina hamar daramatza, familia bertan osatu du, Sera madrildarraren ondoan.

Duela 7 urte, Haritz semea jaio eta berehala, Sao Paolotik 500 kilometrorra dagoen Marilia herrira joan ziren, Nestleren beste lantegi batera. "Herri txikiagoa da, barrualdean dago, Paranai ibaitik gertu", zehaztu du. Ordurako, batetik bestera ibiltzearekin nekatzen hasia zen. "Serak ere lana aurkitu zuen herrian bertan, 35 urte ere banituen, eta lanez aldatzeko erabakia hartu nuen. Nestlen bizirik ez neukan, Haritzen lehenengo urteak galdu egin nituen, fabrika pasatzen nuen egun gutzia".

### Irakasle

Nestle utzi eta Senai-n (Serviço Nacional de Aprendizagem Industrial) irakasle bezala hasi zen Elikagaien Teknologiarenean. "Senai Lanbide heziketako sare nazionala bezala da. Enpresa estatal misto bat da. Industria sindikatuak ordaintzen du zati bat. Legez derrigorrezkoa da zati bat ordaintzea. Diru hori fondo batera joaten da eta diru hori Senai-k gestionatzen du, langileei eta langileen seme-alabei hezkuntza



## Brasil eta euskaldunak

Eusko Ikaskuntzaren bitartez, Brasilgo euskaldunei buruzko lana egin dauka Estebe Ormazabalek, beste hiru lagunekin batera. Arlo historikoa landu zuen beasaindarrak, eta Brasila iritsi zen lehenengo euskaldunaren atzetik ibilia da. Elkarriketa asko egin zituen, euskaldunen arteko sarea zabalduz. "Orduan konturatu nintzen euskaldun asko zegoela Brasilen". Artxiiboak ere arakatu zituen eta hantxe aurkitu zuen pista: " ikusi nuen 1549an iritsi zela lehenengo euskalduna. Azpilikueta Navarrok nafar jesuita zen. Euskaraz hitz egiten zuen. Jesuiten kartetan azaltzen zen, Azpilikuetak bertako indioen hizkuntza berehala ikasi zuela, bizkaitarrarekin antzekotasunak dituelako hizkuntzak..."

Marilian bizi izan zen garaian, Euskonews-en artikulua bat baino gehiago idatzi zuen, Brasilgo emigrazioaz. Datu bitxiak aurkitu izan ditu beasaindarrak. "Adibidez, Brasilen, balearen arrantza euskaldunek sartu zuten. Brasil garai hartan Espainiako Koroarena zen, Portugal konkistatu zuen garaian, eta bale asko zeudela jakin zuten. Bizkaitarrak oso arrantzale onak zirela eta talde bat bidali zuen. 7 bat urtetan, 200 lagun inguruko tripulazio bat joan zen baleak harrapatu eta bertakoei erakustera".

**B**rasila joan zen lehenengo euskalduna, 1549an, Azpilikueta jesuita nafarra izan zen.

emateko. Pelé futbolaria brasildarra da eta Senai ere bai. 50 urte ditu. Izugarriko estatusa daukan estamentua da. Tradizionala. Urtero milioiko pertsonak ikusten dute. Gazteei ofizioa irakasten lan egiten da bertan. Ni elikadura munduan aritzen naiz". Aholkulari lana ere egiten du, enpresa txiki eta eta ertainetan.

Gustura dago beasaindarra egindako lanbide aldatzarekin. "Ikasleak izugarriko motibazioarekin joaten dira. Senai-n sartzeko azterketa bat gainditu behar dute. Badakite bere biziko aukera bat dela eta ikasteko benetako gogoarekin joaten dira. Oso giro polita dago. Irakasle eta ikasle arteko harremana oso ona, lagunak bilakatu dira".

Bost urte egin zituzten Marilian, eta bertan izan omen dute aukera, Brasilgo benetako bizitzara hurbiltzeko. Oso urte aktiboak ziren Esteberentzat. Esate baterako, hainbat guraso elkartu eta kooperatiba den eskola bat sortu zuten, Haritz semea eskolaratzeko garaia iritsi zenean.

Iaz, ordea, "Mariliako bi-

**Arkupe**

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



**RENAULT  
LAZKAO GARAJEA**

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901  
Senpere Industrialdea LAZKAO

## Euskarako ikastaroa antolatu eta lehenengo egunean, 50 lagun etorri ziren.

zi bukolikoarekin pixka bat aspertuta”, eta batez ere lagun minenak Sao Paolon zituztelako, Sao Paolora itzultzea erabaki zuten, egun batetik bestera. Senai-n bertan Sao Paoloko eskola batean eskaini zioten lana. Duela sei hilabete, Amandi semea jaio zen.

### Euskal Etxea

Lehenengo aldian Sao Paolon egon zirenean bertako Euskal Etxea ezagutzeko aukera izan zuen. 1998. urtean Xabier Harluxet ezagutu zuen, Iparraldekoa. Euskal Etxeko bigarren idazkaria. Euskal Etxea 1957an sortu zen. “Lehenengo urteetan, klub funtzioa betetzen zuten. Bi pertsona zeuden, politizatuagoak zeudenak, Eusko Jaurlaritzakoak izandakoak, eta eurek mantendu zuten, nahiz eta klub bat izan, Euskal Etxea zela. 20-30 familia elkartzen ziren. Oso toki polita zen: pilotalekua zeukan, erreka ondoran zegoen eta bainatu egin zitekeen... Baina zahartzen joan ziren eta hurrengo belaunaldiak ez zuen jarraitu. Eta ez zekiten bizi berri bat nola eman. Batzuk saldu egin nahi zuten, Espainiako etxearekin bat egin...”.



## Futbolaren festa

Munduko Kopa bete-betean zenean egin genuen elkarriketa Estebe Ormazabalekin. “Futbolero totala” eginda dagoela aitortu du. “Lau urtetik behin birus bat sortzen da eta brasildar guztiak kamisetakin-eta ibiltzen gara. Kontagiatu egiten da”. Eskolak, banketxeak, aireportuak... dena gelditzen da. Partidua baino bi ordu lehenago Brasil gelditu egiten dela adierazi du beasaindarrak. Lagunartean ikusten dituzte partidua.

Uztailaren 9an nor izango den txapeldun garbi dauka: “badakigu seigarren txapelketa irabazi behar dugula”. Tradizio handia dauka futbolak Brasilen. “1958tik hona, Brasil beti egon da azkeneko fase guztietan. Bost aldiz irabazi du txapelketa eta azkeneko lau txapelketetan, final guztietan egon da. Imajinatu espainolak nola zeuden, final zortzirenetara iritxita. Pentsa ezazu espainolek bost aldiz irabazi balute Mundiala. Ba Brasilen berdina gertatzen da”, gaineratu du.

1998an Xabier Harluxet joan eta “pilak jarri” zizkien. Estebe ere orduan gerturatu zen. Eusko Jaurlaritzarekin berriz harremanetan jarri zen, Brasila iristen ari ziren euskal enpresekin ere bai...

Bizi berri bat emateko, kultur aste bat antolatu zuten. Tartean, euskarazko ikastaroa ere antolatu zuten, unibertsitatean. 30 bat lagun aritu ziren. Mikel Lasa beasaindarra joan zen irakasle.

“Erakustaldiak, bazkaria... antolatu genituen. Oso modu polita sortu zen eta arrakasta handia izan zuen”.

Baina handik gutxira Xabier bera Kanadara eta Estebe Mariliara joan ziren. Harremanak, jarraitu egin zuen. Beraz, iaz Sao Paolora itzuli zenean, Euskal Etxera joan eta jende berriarekin topo egin zuen, kide zaharrak eta berriak. “Beste jende bat etorri zen, ezker-tiarragoa, beste izpiritu batetokoa”.

Bi urtean behin hauteskundeak egiten dituzte Euskal Etxean, eta azkenekoe-tan, Estebe aukeratu dute lehendakari. Kide zaharrenen eta berrien arteko baztordea osatu dute.

### Euskara ikastaroa

Euskal Etxea berpizteko gogoarekin hurbidu zen Estebe. Euskarako klaseak ematea proposatu zuen eta asmatu egin dute. “Katalunia-ko etxean ematen hasi ginen. Kartelak jarri eta lehenengo egunean 50 lagun azaldu ziren. Ni harrituta gelditu nintzen. Habeko Boga sistemarekin hasi ginen. Internetez euskaraz ikasteko sistema da Boga. Oso polita da”.

Unibertsitateko jendea, hizkuntzalariak, Euskal Herria interesatzen zaienak, Euskal Herriarekin era bateko edo besteko harremana daukatenak... dira Esteberen ikasleak. Ikasle bitxi bat ere badu beasaindarrak: “Ikasle zaharrenak 81 urte ditu. Nafarra da bera. Txikitant amak euskara jakinagatik berak ez zuen ikasi, eta bere garaia iristen denean, ‘Zabaldutzea, San Pedro’ esan nahi omen du. Orde-



# kutxa

nagailua erosi du, interneten ibiltzen ikasi du... fenomeno bat da”.

Euskaraz gain, euskal kulturaz eta Euskal Herriaz ere hitz egiten dute larunbatetako eskoletan.

Euskararen bueltan, bizitza handia eman diote Sao Paoloko Euskal Etxeari, eta ekintza ezberdinak antolatzen baitituzte.

Euskal Etxea, hirigunetik 22 kilometrora dago. Gernikako arbolaren kimua den haritz ederra omen dago. “Sentimentalki balio handikoa da, nahiz eta praktikoa ez den. Festak han egiten ditugu. Euskararen festa egin genuen eta ikasle asko etorri zen. Oso giro polita sortu zen”.

### Eredugarriak

Estebe Ormazabalek aitortu duenez, Euskal Herritik hainbat kilometrora euskara ikasten ari diren ikasleak eredugarriak dira. “Beasainen txikitatik bizi eta euskararik hitz egiten ez duenari, Fabio Aristimuño Vargas brasildarra, orain dela urtebete euskara ikasten hasi dena, aurkeztuko nioke. Euskara ikasten ari da eta hari ez dio halako arazorik sortzen, euskara jakinagatik, brasildarra izaten jarraitzen du. Zenbaitek barrera bat daukate jarrita eta ezin dute pasatu. Ez dakite ondo zer galtzen duten. Mundu berri bat zabalduko zaio euskara ikasita”.



“Euskal Herriko euskaldunek interneta erabiltzeko aholkatzen diet, zortzigarren herrialdekoekin harreman ona edukitzeko eta asko ikasteko”.

## Internetekin liluratuta

Sao Paoloko Euskal Etxearen web orria prestatu dute dagoeneko, Estebe Ormazabalentzat hain garrantzitsua den interneten.

Teknologia berriak ondo aprobetxatzen ditu beasaindarrak. “Kanpoan bizi garen euskaldunoi, bizi berria eman digu internetek. Urtetan oso zaila izan da Euskal Herriko informazioa jasotzea. Nahi duzun guztia dago interneten”.

Euskosarea-n ere sartuta dabil beasaindarra. “Oso proiektu polita da. Hemen

bizi zareten euskaldunok ez daukazue horren beharrik baina kanpoan bizi garenontzat oso garrantzitsua da kalitatezko informazioa duen erreferentzia puntu bat izatea”.

### Mintzalaguna

Euskosarearen barruan Mintzalaguna proiektua jarri dute martxan. Bera da moderatzailea. “Euskaraz dakien munduko jende guztiak hitz egiteko lekua da Mintzalaguna”, azpimarratu du beasaindarrak.

### Tresna garrantzitsua

Estebek aitortu duenez, “guretzat internet oso garrantzitsua bihurtu da. Baina teknologia berriei ahalik eta etekinik handiena nola atera saiatzen ari naiz”.

Era horretan, “Euskal Herriko euskaldunek internet erabiltzeko aholkatzen diet, zortzigarren herrialdekoekin harreman ona edukitzeko eta asko ikasteko. Jendea ez da ezagutzen. Euskal Herriko jendeak diasporako jendeaz ideia bat dauka”.

**IÑAKI ARIN**  
**Aseguruak**



☎ **943 888 702**  
**Oriako Pasealekua, 20**  
**B E A S A I N**

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.

**AUZOKI**  
**Komunitateen administrazioa**  
 Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea  
 ORDIZIA  
 Tel.: 943 087 486

## Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,

**hitz bakoitzeko 0,60 euro.**

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da [www.goierrikohitza.info](http://www.goierrikohitza.info) webgunean.

**Harremanetarako:**

**943 88 96 12**

[goierritarra@goierrikohitza.info](mailto:goierritarra@goierrikohitza.info)  
[gh@goierrikohitza.info](mailto:gh@goierrikohitza.info)

### ETXEBIZITZAK

#### salgai

**Beasainen** pisua salgai. 65 m<sup>2</sup>. Eraberritua. 695739069.

**Idiazabalen** apartamentua salgai. 656751859.

#### logela

**Goierrin** logela bat hartuko nuke alokairuan. 695759443.

#### errentan hartu

**Lazkaon, Ordizian edo Olaberrin** alokatzeko pisu bila nabil. 943164897. Cristina.

**Alokairuan pisua** hartuko nuke. 617752018 - 650312304.

**Ordizian** edo inguruan familia arduratsuak pisua errentan hartuko luke. 627568311 - 667032109.

#### errentan eman

**Saloun** apartamentua alokatzen da, hondartzatik gertu, igerilekuarekin. 'Michelangelo' eraikuntza. Ekainetik irailera alokatzen da. 943027417.

**Ordizian** edo inguruan familia arduratsuak pisua errentan hartuko luke. 627568311 - 667032109.

**Jakan** apartamentua alokatzen da igerilekuarekin, uztaile osoan eta abuztuaren 15etik 31ra bitartean. 676615361.

### LOKALAK


#### salgai

**Donostian**, Artzain Ona inguruan, sotoko lokala salgai. 38 m<sup>2</sup>. Bizitzen jartzeko prestatuta. Berritua. Aire egokitua. 650114788.

## SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta  
ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

**TOLARE**  
**URBITARTE**  
**SAGARDOTEGIA**  
☎ 943 18 01 19 **ATAUN**



**LOGOS**  
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierrin egindako  
sukaldeak



## ANIMALIAK

### opari

**Katuak** opari. 678924478.

## BESTELAKOAK

### salgai

**Haur silla salgai:** casual play vintage, 6 gurpilduna, beltza, koltxoneta, poltsa eta burbujarekin. 130 euro. 626503990.

**Salgai:** 4 ateko armarioa (1.90 m zabalean, 2 m altuan); egongelako 2 mahai (110x50 bat, 40 x40 bestea). Erdi berriak. Osagai ugari opari. Prezio interesgarria. 20:00etatik aurrera deitu. 696370101.

**Comanche** gurdidenda salgai. (650 euro). 685754309.

## GALDUTAKO OBJEKTUAK

**Poltsikoko erloju** grabatua galdu da San Adrian eta Zegama bitartean. Maiatzaren 30ean. Izaskun eta Manex jarzen du. 637447004.

## IBILGAILUAK

### erosi

**Peugeot 306** erosiko nuke: 5 atekoa, 2002. urtekoa eta ondo zaindua; Volvo V40 bategatik aldatu. 943161945.

### salgai

**Volkswagen California** furgoneta salgai, 95. urtekoa. 16.000 euro. 610264720.

**Mercedes Vito** 110 CDI salgai. 2002. urtekoa. 91.500 kilometro. 666723855.

**Nissan Primera** salgai. Egoera eta prezio oso onean. 659049091.

**Volkswagen Golf** salgai. Gasolina. 105 zaldi, 2001. urtekoa. 65.000 km. 606061165.

**Opel Corsa** 1.3 salgai. Oso egoera onean. 750 euro. 665709146.

**Volkswagen Transporter** TDI-a salgai. 30.000 km. 635722378.

**Knaus soubvin** karabana salgai. Abantzearekin eta bizikleta eramatekoarekin. Egoera onean. 639775777.

## LANA

### eskaerak

**Goi mailako ingeniartzako** jendea behar da klaseak emateko. Bidali CV-a: [urratsak@telefonica.net](mailto:urratsak@telefonica.net)

**Emakumea** behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Orduetgia: 8:00etatik 13:00etara. 650550202.

**Asteburuetan zerbitzari** lanak egiteko neska bat behar da jatetxe batean. 630402575.

**Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea** behar dira Beasainen. 629869668.

**Esperientziadun zerbitzari** euskalduna behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. 943164844 (9:00etatik 13:00etara deitu).

**Peoi** bat behar da etxe eta jardineko lanetarako. 943160432 - 626898264.

**Goierriko jaki** enpresa batek dendetarako kudeatzailea behar du. Ekonomi edo/eta bezero arreta kudeaketan bi urte edo gehiagoko esperientzia nahitaezkoa. Soldata interesgarria eta mugagabeko kontratua. Interesatuak CV-a bidali [rencinas@sainzconsultores.com](mailto:rencinas@sainzconsultores.com) erref. GT 574 edo 943297482 fax zebakira.

## eskaintzak

**Itzulpenak** egiteko prest nago, euskara/gaztelaniatik alemanierara. Christiane Bendel, 943164897.

[cristinabendel@yahoo.es](mailto:cristinabendel@yahoo.es)

**Emakumea** prest dago etxekolanak egin eta haurrak edo agureak zaindu eta ostalaritzan lan egiteko. 650571774.

**Emakumea** prest dago etxekolanak egin eta haurrak edo agureak zaindu eta ostalaritzan lan egiteko. Erdalduna. 620743076.

	<b>KAMIXETA ESTANPAZIOA FOTOKOPIAK KOLORETAN</b>  ☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39 San Inazio, 5 BEASAIN
--	---

<b>KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA</b>  <b>Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak</b>  Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61 Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN
---

<b>ikaskide</b> irakaskuntza zerbitzuak Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120 <a href="http://www.ikaskide.net">www.ikaskide.net</a>	<b>UDA 2006</b>  <b>INFORMATIKA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>✓ Photoshop</li><li>✓ Power point</li><li>✓ Web orrien diseinua</li><li>✓ Office</li><li>✓ Mekanografia</li><li>✓ Ordenadore bat ikasleko</li></ul> <b>INGELERA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>✓ Maila guztiak</li><li>✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera</li><li>✓ Cambridge-ko azterketak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)</li></ul>
--	--



**Alkartasuna Lizeoko ikasleak 1991n**

1991ko inauterietan ateratako argazki honetan, 1985ean jaiotako Alkartasuna Lizeoko ikasleak ageri dira.  
**Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera:** Miren Lopetegi, Josune Salinas, Xabier Insausti, Alazne Mujika, Leire Mendiaraz, Adur Ugartemendia, Eñaut Sarriegi, Jon Loiarde, Julen Mujika eta Paki Elorza (andereñoa).  
**Aurreko ilaran:** Ander Otaegi, Ane Zabalo, Leire Mujika, Jon Zeberio, Xabier Urrea, Alex Gerra, Maitane Murua eta Irati Zubeldia.



**izal** ☎ 943 187 049  
 ☎ 943 187 045  
 Ondramuño  
 baserría  
 IDIAZABAL  
 IMAZ eta CONTRERAS  
**PINTURA eta PAPERGINTZA**



**LEIAR** **LEIAR** **KRISTALDEGIA**  
 ERAKUSKETA:  
 Ezkiaga Pasealekua z/g  
 ☎ 943 88 88 24  
 BILTEGIA:  
 Salbatore Industrialdea  
 ☎ 943 88 60 70  
**BEASAIN**

**o s k a r b i**  
 oinetakoak




**A SE PLAN S.L.**  
 A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA  
 JURIDIKOA  
 LABORALA  
 FISKALA  
 MERKANTILA  
 INMOBILIARIA  
 FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129  
 Oriamendi 15, behea  
**BEASAIN**  
 Tel.: 943 086 420  
 J.M. Iturriotz, z/g

# DR. JOSE GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



## BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA Lumbalgia, Hernia Diskala, Zefalea, Migraina, Artrosia, ATM

Osteopatia lumbalgia, hernia diskala, bizkarreko zein buruko mina, artrosia eta antzerako ondoezak, ezur eta nerbioetan sorturikoak, sendatzen dituen medikuntzaren espezialitatea da. Gure eginkizunekin zuzenki erlazonaturik dauden eta bizi kalitatean eragin handia izan ohi duten minak gainditzen laguntzen digu medikuntzaren alor honek.

Jose Gisasola osteopatian medikua da eta urteak daramatza tratamendu naturalez baliatuz gisa honetako gaitzekin lanean.

Aurrez hitzordua hartuta:

629 45 20 53 - [jgisasola@telefonica.net](mailto:jgisasola@telefonica.net)

Andra mari, 13 Sol.Art. Ezk. / 20200 Beasain (Gipuzkoa)

Urbietan, 39 - 1. Ezk / 20006 Donostia (Gipuzkoa) / T 943 471 885

reklamo



# Nazaret zentroa

[www.nazaretzentroa.com](http://www.nazaretzentroa.com) - Aldakoenea, 36 - B° Egia  
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384

# N<sup>Z</sup>

Irakaskuntzaertain  
eta lanbiderakoak  
Enseñanzas medias  
y profesionales

## Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

## Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

Ziklo Ertainak

- 1 Administrazioa eta Finantza
- 2 Informatika
- 3 Marketina
- 4 Nazioarteko Merkataritza
- 5 Idazkaritza

**Ikasgaiak euskaraz,  
erdaraz eta ingelesez  
ematen dira**



## JARDUNALDI IREKIAK

Hilabetea	Martxoa		Apirila		Maiatza	
Eguna	24	25	28	29	26	27
Ostirala	●		●		●	
Larunbata		●		●		●
Ordua	18h.   11h.		18h.   11h.		18h.   11h.	

 **kutxa**, lankidetzako gizarte ekintza



## PARKE NATURALA ETA KULTURALA

### JATETXEAK

ARTZAIENEA - Beasain	943 16 31 16
AZTIRIA - Gabiria	943 73 36 22
DOLAREA - Beasain	943 88 88 29
KUKO - Ormaiztegi	943 88 28 93
LOINAZ - Beasain	943 88 20 07
MANDIOA - Zerain	943 80 17 05
MANDUBIA - Beasain	943 88 26 73
MARTINEZ - Ordizia	943 88 06 41
OIANGUREN - Ordizia	943 16 13 71
OSTATU - Zerain	943 80 17 99
OTEÑE - Gaintza	943 88 98 48
OTZARTEKO BENTA - Zegama	943 80 12 93
TXINDOKI - Ordizia	943 88 40 49
URBIETA - Ataun	943 18 00 19
URKIOLA - Beasain	943 08 61 31

JULKI GOZOTEGIA - Beasain	943 88 82 37
UNANUE GOZOTEGIA - Ordizia	943 88 15 51

### KOMERTZIOA

ORDIZIAN ELKARTEA - Ordizia

### NEKAZAL TURISMOAK

ALDARRETA - Ataun	943 18 03 06
ARRIETA - HAUNDI - Zegama	943 80 18 90
BORDA - Olaberria	943 16 06 81
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
LIZARGARATE - Lazkao	943 88 19 74
OIHARTE - Zerain	680 17 12 91
ONDARRE - Segura	943 80 16 64
PAGORRIAGA - Beasain	943 58 20 71
TELLERINE - Zerain	943 58 20 31

### SAGARDOTEGIAK

MARISQUERÍA KORTA - Gabiria	943 88 71 86
OTATZA - Zerain	943 80 17 57

### ZERBITZU TURISTIKOAK

ALARPE-ZALDIZKO IBILBIDEAK	943 88 05 76
ALDABE-GIDA ZERBITZUAK	943 80 15 05
EKITUR- GIDA ZERBITZUAK	943 88 23 09

### LANDETXEAK

LIERNIGARAKOA - Mutiloa(Liemia)	943 80 16 99
ORUE - Mutiloa	943 80 19 00

### HOTELAK

CASTILLO *** - Olaberria	943 88 19 58
IGARTZA * - Beasain	943 08 52 40
SALBATORE * - Beasain	943 88 83 07

### PENTSIOAK

ITXUNE ** - Ormaiztegi	639 23 88 89
ZEGAMA ** - Zegama	943 80 10 51
ZEZILIOENEA ** - Olaberria	943 88 58 29

### ATERPETXEAK

ATAUN	943 18 00 34
SEGURA	943 80 10 10
ZERAIN	943 80 15 05

### KIROLAK

KIROL ZERBITZUAK - Ordizia	943 88 93 33
----------------------------	--------------



**goierri**  
bertan duzu

943 161 823  
[www.goierri.org](http://www.goierri.org)



ALARREKO INTERPRETAZIO ZENTRUA ATAUN  
 IGARTZA, ERTAROKO MULTZOA BEASAIN  
 GAZTAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA IDIAZABAL  
 ELIKADURA ETA GASTRONOMIAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA  
 GOIERRIKO INTERPRETAZIO ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA  
 ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI  
 ERTAROKO INTERPRETAZIO ZENTRUA SEGURA  
 EGURRAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA ZEGAMA  
 PARKE KULTURALA ZERAIN

# egun beteko plana

Altzaga Arama Ataun Beasain Gabiria Gaintza Idiazabal Itsasondo Lazkao Legorreta Mutiloa Olaberria Ordizia Ormaiztegi Segura Zaldibia Zegama Zerain